

MERKATU-SEGMENTAZIOA:

ParkFinder proiektua Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari zuzenduta dago, hauek baitira gure proiektua arautzeko, kudeatzeko eta finantzatzeko beharrezkoak diren erakundeak. Bi erakunde horiek interes berezia dute ekimen honen alde, izan ditzakeen ondorio positiboengatik, batez ere Bilboko metropoli eremuko biztanleen ongizatea eta zorientasuna hobetzeko. Izan ere, proiektu honek, besteak beste, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzen lagundu dezake, eremu metropolitarraren bizi kalitatea hobetuz eta ingurumen-jasangarritasuna sustatuz.

Proiektua arrakastatsua izanez gero, hurrengo fasean, Espainiako eta Europar Batasuneko beste metropoli eremu batzuetara ere hedatu liteke. Horrek esan nahi du beste lurralde batzuetako gobernuek ere interesa izan dezaketela ParkFinder-ek eskaintzen dituen onurez baliatzeko. Honek, gainera, nazioarteko dimentsio bat emango lioke proiektuari, Europa mailan mugikortasun eta jasangarritasun irtenbide eraginkorrak bilatzeko ahaleginean lagunduz.

Segmentazio demografikoa kontuan hartuta, aplikazioa bereziki hiri inguruneetan bizi diren eta ibilgailua duten erabiltzaileei zuzenduta dago, adin-tarte ezberdinetako gidariei mesede egin diezaiekeen arren, gehienbat 25 eta 60 urte bitarteko pertsonei, zeinek lan-bizitza aktiboan dauden eta hiri-eremuetako aparkaleku beharrei aurre egin behar dieten. Gainera, errenta-maila ertain-altua duten pertsonei zuzenduta dago, izan ere, aparkalekuak erreserbatzeko eta TAO-a ordaintzeko erraztasunak eskainiko dira, eta erabiltzaileek mugikortasun-esperientzia erosoagoa izango dute.

Geografiari dagokionez, Bilboko metropoli eremuko biztanleak dira lehentasunezko erabiltzaileak, baina arrakastatsua izanez gero, beste hiri-metropoli batzuetara hedatzea aurreikusten da, bai Espainian eta bai Europan. Beste metropoli eremuetako erabiltzaileak eta gobernuek ere interes handia izan dezakete antzeko mugikortasun eta jasangarritasun erronkak dituztelako.

Segmentazio psikografikoari dagokionez, aplikazioa erabiltzen dutenak oro har teknologiara ohituta dauden pertsonak izango dira, soluzio digitalak baliatzen dituztenak eta aparkalekuari dagokionez konponbide eroso eta azkarrak nahiago dituztenak. Hauen artean, bizitza arina eta azkarra bilatzen duten pertsonak, lan eta aisialdi orduak optimizatzea bilatzen dutenak eta ingurumenarekin kontzientziatuak direnak nabarmentzen dira, hiriguneen jasangarritasuna hobetzea bilatzen duten neurriak babesten dituztelako.

Segmentazio portaeraren arabera, erabiltzaileak hiri-eremuetara maiz bidaiatzen duten pertsonak izango dira, lanera, ikasketetara edo aisialdi-gunetara. Aparkaleku bat aurkitzeko zailtasunak dituzten erabiltzaileak izan daitezke, eta irtenbide azkarrak bilatzen dituztenak, aldez aurretik erreserba egin ez denbora eta estresa aurreztu nahi dutenak.

Bestalde, ParkFinder aplikazioa ibilgailua duten biztanle orokorrari ere zuzenduta dago. Aplikazio honek aukera ematen die hirien erdiguneetan aldez aurretik aparkaleku bat erreserbatzeko, eta, horrela, hirietako erdiguneetarako sarbidea errazten eta bidezkoagoa egiten du. Erabiltzaile gidarien erosotasuna da helburu nagusia, haien eguneroko bizitza arintzea eta erraztea lortuz. Aldi berean, hirietan sartzen diren gidari kopurua modu justu

batean kontrolatzea lortzen da, eta garraio publikoaren erabilera sustatzen da, erreserba egiten ez dutenek ezin izango dutelako haien ibilgailuekin aparkatu. Horrela, hirietan mugikortasun arinagoa eta antolaketa hobeia sustatzen da, eta horrek, azken finean, hiriak jasangarriagoak, irisgarriagoak eta bizigarriagoak bihurtzen lagunduko du.